



Esp. kodea: 2025PHLF0002

Gaia: Hirigintzako burua, oposizio-lehiaketa

AURRETIAZKO INFORMAZIOA

BIGARREN PROBA_B ZATIA: AZTERKETA TEORIKO-PRAKTIKOA

- Data: **2026ko ekainaren 18an**
- Ordua: **09:00etan**
- Iraupena: **3 ordu**
- Lekua: [Arrasateko Udal Euskaltegian](#). (Nafarroa Hiribidea 2)
- Azterketa gunea **08:45ean irekiko da**.
- Kontroletik pasatu aurretik komunera joan ahal izango da. Azterketa eremuan sartu ondoren, ezingo da ezertarako irten azterketa amaitu arte.
- Ezingo da irten azterketa hasten denetik gutxienez 20 minutu pasatu arte.
- Azterketa gunearen barruan, zaintzaileek esandakoari jarraituko zaio beti.

BIGARREN PROBA_B ZATIA: AZTERKETA TEORIKO-PRAKTIKOA_AHOZKOA

- Data: **2026ko ekainaren 18an**
- Ordua: 12:30etatik aurrera (Ondoren adierazten da informazio guztia).
- Iraupena: **prestaketa lanetarako 30 minutu, epaimahaiaren aurrean aurkezteko 10 minutu**.
- Lekua: Kulturete eraikina (Azoka kalea 1), [atzeko atetik sartu \(Otalora kalea\)](#).
- Kontroletik pasatu aurretik komunera joan ahal izango da. Azterketa eremuan sartu ondoren, ezingo da ezertarako irten azterketa amaitu arte.
- Ezingo da irten azterketa hasten denetik gutxienez 20 minutu pasatu arte.
- Azterketa gunearen barruan, zaintzaileek esandakoari jarraituko zaio beti.

Kodea	AG26/03845	Udala	Arrasate/Mondragón
CUDO	000.0055.AAA1P1MX.M.3NF		
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1P1MXM.3NF		
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitez webgunean edo irakurri ezazu QR irudia.			







Esp. kodea: 2025PHLF0002

Gaia: Hirigintzako burua, oposizio-lehiaketa

JARRAIBIDEAK

BIGARREN PROBA_B ZATIA: AZTERKETA TEORIKO-PRAKTIKOA

Irakurri arretaz jarraibide hauek. Oso garrantzitsuak dira azterketa nola egin jakiteko. Azterketa egiteko moduari buruzko zalantzarik edo zailtasunik baduzu, galdetu zaintzaileei azterketa hasi aurretik.

EZ IDATZI EZER AGINDUA EMAN ARTE

➤ Mahaiaren gainean ondoko materiala aurkituko duzu:

- jarraibideen orria.
- Kartazal handia.
- Kartazal txikia.
- Identifikazio txartela.

Zerbait falta bada, eskua altxatu eta eskatu zaintzaileei.

- Azterketa egin bitartean, zure NANA mahai gainean utzi behar duzu, ikusteko moduan. Azterketan zehar, eman zaizun materiala, azterketan bertan banatu zaizuna, NANA eta boligrafoa (beltza edo urdina).
- Telefono mugikorrak eta bestelako gailu elektronikoak itzalita eduki behar dira (ez isilik, ez hegaldi moduan).
- Ezin da eraman erloju adimendurik.
- Hautaketa prozesutik kanpo geldituko dira ariketak irauten duen bitartean erabiltzeko moduan dagoen sakelako telefonoren bat edo beste edozein gailu elektroniko daramatzaten hautagaiak, Internetarako edo beste gailu batzuetarako konexioa duten gailu elektronikoak.
- Ezin izango da belarritako tapoirik erabili.
- Isiltasunak erabatekoa izan behar du azterketa gunean zauden denbora oro. Besteentzat desegokia edo gogaikarria den edozein jokabidek esparrutik kanporatzea ekarriko du.

1. Azterketaren anonimotasuna bermatzeko, hautagai bakoitzak kutxa edo zorro batean dauden zenbakidun papertxoetako bat ausaz hartuko duzue. Egokitutako zenbakia isilpean gorde beharko duzu, eta ezingo diozu inori adierazi ezta erakutsi ere.
2. Ondoren, identifikazio txartelean honako datu hauek idatziko dituzu: egokitu zaizun zenbakia, izen-abizenak, azterketaren izena, azterketaren eguna, NAN zenbakia eta sinadura.
3. Identifikazio-txartelean izan ezik, ezingo da hautagaia identifikatzeko aukera ematen duen edozein datu, marka edo erreferentzia idatzi. Hala eginez gero, epaimahaiak dagokion erabakia hartuko du, oinarri orokorretako 7.5.6 atalean aurreikusitako ondorioak aplikatuz.

Kodea	AG26/03845	Udala	Arrasate/Mondragón
CUDO	000.0055.AAA1P1MX.M.3NFi		
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1P1MXM.3NFi		
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitez webgunean edo irakurri ezazu QR irudia.			







Esp. kodea: 2025PHLF0002

Gaia: Hirigintzako burua, oposizio-lehiaketa

- Azterketa hau **ordenagailuz** egingo da. Hala ere, baliteke azterketaren zati bat paperean egin behar izatea; kasu horretan, beharrezko jarraibideak azterketan bertan emango dira. Enuntziatua paperean banatuko da.
- Epaimahaiak hautagaiek egindako eskaerak eta planteatutako zalantzak aztertu ondoren erabaki du azterketa egiteko beharrezkoa den gaitegi guztia hautagaien eskura jarriko duela. Horretarako, azterketan erabiliko duzun ordenagailuan "AZTERKETA" izeneko karpeta bat edukiko duzu, eta bertan azterketa egiteko behar den dokumentazio eta material guztia karpeta batean aurkituko duzu. Hori dela eta, ez da onartuko hautagaiek gaitegiarekin lotutako inolako euskarri, dokumentu edo bestelako materialik ekartzea; azterketan erabil daitekeen material bakarra epaimahaiak emandakoa izango da.**
- Azterketa amaitzean, erabilitako dokumentu guztiak PDF formatura bihurtu beharko dituzu. Ondoren, mahaigainean "**AZTERKETA**" izenarekin dagoen karpeta barruan gorde beharko dituzu, eta dokumentuei izenean aurretik egokitutako zenbakia jarri beharko diozu. Azterketarekin lotutako fitxategi guztiak karpeta horren barruan gorde beharko dituzu. Eskuz entregatu beharreko dokumentaziorik balego, kartazal handian sartuko duzu identifikaziorik adierazi gabe eta kartazal txikia barruan dagoela. Azkenik, kartazal handia itxita entregatu beharko duzu.
- Ariketa amaitzen duzunean, altxatu eskua eta itxaron zaintzailea hurbildu arte.
- Ondoren, gelatik irtengo zara eta ahozko probarako ezarri zaizun orduan Kulturate eraikinera bertaratu beharko duzu.

BIGARREN PROBA_B ZATIA: AZTERKETA TEORIKO-PRAKTIKOA_AHOZKOA

- Hautagaiek ahoz erantzun beharko diote epaimahaiak planteatutako ariketari. Proba banaka egingo da eta horren prestaketa denbora 30 minutukoa izango da. Informazioa trukatzeko saihesteko neurriak hartuko direnez, hautagaiak txandetan banatuko dira.
- Prestaketa lanetarako enuntziatua emango zaizu eta zirriborroetarako orriak eskura izango dituzu. Ezingo da galderarik egin. Informazio guztia enuntziatuan bertan izango duzu.
- Epaimahaiaren aurrera enuntziatua eta zure zirriborro orriak eraman ahal izango dituzu. Epaimahaiak ez du inongo dokumentaziorik jasoko. Amaitu ondoren zurekin eraman beharko duzu dokumentazio osoa.
- Epaimahaiaren aurrean gehienez 10 minutu izango dituzu ariketa aurkezteko.
- Aurkezpena audio grabagailu baten bidez grabatuko da. Hautagaien batek grabazioa egiteari uko egiten badio, ariketa horri dagokion erreklamazioa aurkezteko eskubidea galduko du.
- Aurkezpena amaitu ondoren joan zaitezke.
- Puntualtasuna ezinbestekoa izango da.
- Bertaratze agiriak emailaz bidaliko dira.

Kodea	AG26/03845	Udala	Arrasate/Mondragón
CUDO	000.0055.AAA1P1MX.M.3NFi		
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1P1MXM.3NFi		
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitez webgunean edo irakurri ezazu QR irudia.			







Esp. kodea: 2025PHLF0002

Gaia: Hirigintzako burua, oposizio-lehiaketa

Ahozko azterketarako txandak:

HAUTAGAIA		Azterketara aurkezteko ORDUA	Prestatzen hasteko ORDUA	Proba prestatzeko	Epaimahaiaren aurrean
1	ZENIKAONANDIA OTZERINJAUREGI, HODEI	12:30	12:30	30'	13:00
2	ZIARRUSTA ATUTXA, OLAIA	12:45	12:45	30'	13:15
3	ECEOLAZA GALLASTEGUI, JAIONE	13:00	13:00	30'	13:30
4	ERDOZIA IBAÑEZ, NORA	13:00	13:15	30'	13:45
5	JAUREGI LARRAÑAGA, AITOR	13:00	13:30	30'	14:00

Hautagaien ordena egin da [Administrazio Publikoen Estatuko Idazkaritzak](#) 2025 urtean ezarrita duen hizkitik (U) hasita.

OHARRA: Ezin izango da mugikorrik edo erloju adimendunik erabili. Hautagaiak Kulturaten sartzen direnean, bakoitzak bere mugikorra eta/edo erloju adimenduna gutun-azal batean sartu eta itxi egingo du, eta ezin izango du gutun-azala ireki Kulturatetik irten arte.

ESKERRIK ASKO ZURE LAGUNTZAGATIK

Kodea	AG26/03845	Udala	Arrasate/Mondragón
CUDO	000.0055.AAA1P1MX.M.3NFi		
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1P1MXM.3NFi		
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitez webgunean edo irakurri ezazu QR irudia.			



